

## **EUSKARA BATZORDEAK 2014ko MAIATZAREN 14an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-**

### **Batzarreratuak:**

*Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)*  
*Eider Iturrikastillo and. (ARTEZ enpresa)*  
*Igone Olabarria and.*  
*Pernando Basterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)*  
*Luis Ortuzar jna. (Gernikako Institutua)*  
*EAJ-PNVko bozeramailea*  
*Agurtzane Renobales and. (Barrutia ikastetxea)*  
*Edurne Atxikallende and. (Busturialdeko Irrati Telebista)*  
*Anabel Gerrikabeitia and. (Mertzedeko ikastetxea)*  
*Rosa Okariz and.*

### **Idazkaria:**

*Bittor Zarrabeitia jna. (Euskara Teknikaria)*

Hasiera ordua: 18:30

Amaiera ordua: 20:00

### **Ezin etorria zuritu dutenak:**

*Hitza egunkaria (Busturialde/Lea-Artibai).*

*Ariane Ensunza and.*



## **1).- GAI BAKARRA: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (lehengo EBPN) 2014-2017 epealdirako onartzea.**

Esperanza Uriarte Euskara zinegotziak banatu egin ditu deialdi agiriarekin batera bidalitako dokumentuak eta azalpenak eman ditu egindako lanaz. Orain arte EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) izandakoa, ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) bihurtu du Eusko Jaurlaritzak. Beraz, hurrengo Plan Estrategikoa moldatzeko egin zen partaidetza prozesuan osatutako zirriborroa, ESEPera egokitu behar izan da, bidezko korrespondentziak landuz. Horixe da deialdiarekin batera bidalitako agirietatik “proposamena” deiturikoa. Horrekin batera, bi eranskin ere bidali dira:

- I. eranskina: Aurreko plangintzaldiko hausnarketa-txostenaren lehenengo ataltxoa (guztia jasotzeko web gunera jotzeko aukera dago).
- II. eranskina: Plan Estrategiko berria moldatzeko partaidetza prozesuan izandako batzar guztien aktak eta ekarpenak.

Argitu du baita helburu estrategikoak berdinak direla EBPNkoak zein ESEPeoak, izendapenak izendapen (EBPNko I. helburu estrategikoa “Ondorengoetaratzea/transmisioa” deiturikoa, ESEPn “Jabekuntza” deitzen da) eta desberdintasun bat badagoela: ESEPerako helburu estrategikoez gain, beste atal bat sortu da “Helburuak lortzeko zehar lerroak” deiturikoa.

Horrek, esparruak ere beste modu batera antolatzea ekarri du. Hona aurreko planekiko konparaketa eta egungo eskema hurrengo taulan:



HELBURU NAGUSIAK	Esparruak (14) 2003-2008 EBPN	Esparruak (10) 2009-2013 EBPN	Esparruak (16) 2014-2017 ESEP
<b>1. Helburua</b> <b>Euskara</b> <b>ondorengoetaratzea</b> (2014an, Jabekuntza)	1.- Irakaskuntza 2.- Euskalduntze Alfabetatze 3.- Familia jarraipena	1.- Familia transmisioa 2.- Euskalduntze- alfabetatzea 3.- Irakaskuntza	1.- Familia bidezko transmisioa 2.- Irakaskuntza 3.-Euskalduntze-alfabetatzea
<b>2. Helburua</b> <b>Euskararen erabilera</b>	4.- Administrazioa 5.- Teknologia berriak 6.- Enpresa mundua 7.- Aisia 8.- Kirola 9.- Erljioa	4.- Administrazioa 5.- Lan mundua 6.- Aisia 7.- Kirola --- ---	4.- Administrazioa 5.- Gune geografiko euskaldunenak 6.- Arlo sozio-ekonomikoa 7.- Aisia eta kirola
<b>3.- Helburua</b> <b>Euskara elikatzea</b>	10.- Corpus plangintza 11.- Liburugintza 12.- Publizitatea 13.- Kulturgintza 14.- Hedabideak	8.-Kulturgintza (liburugintza, corpora, eta erlijioa barru) 9.- Komunikabideak 10.- Teknologia berriak	8.- Liburugintza 9.- Kulturgintza 10.- Publizitatea 11.- Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea 12.- Hedabideak 13.- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak
<b>Helburuak lortzeko</b> <b>zehirak</b> (2014ko berria)	-----	-----	- <b>Euskararen aldeko</b> <b>motibazioa:</b> 14.- Sentsibilizazioa eta motibazioa - <b>Euskararen zabalkundea:</b> 15.- Barruko proiektzioa 16.- Kanpoko proiektzioa

Bittor Zarrabeitia Hizkuntza Normalizaziorako Teknikariak (HNT1), akta honetako 1. eranskinetako taulak azaldu ditu, Plan Estrategikoaren laburpena hain zuzen. Bertan agertzen den taulen deskribapena azaltzeari ekin dio.

Jarraian, aurkeztutako Plan proposamena aztertzei ekin zaio. Batzarreratuek hurrengo ekarpenak egin dituzte eta ontzat eman dira:



- 14. orrialdean.- 6. esparrua, “Arlo sozio-ekonomikoa”; 6.1.3. ekintzako lehenengo jardueran zuzendu “Bai Urdaibai” eta “Buy Urdaibai” jarri.
- 17. orrialdean.- 7. esparrua, “Aisia eta kirola”; 7.7.1. ekintzako lehenengo jardueran “Bikotekide” erabili beharrean “*bikote linguistikoak*” erabili.
- 19. orrialdean.- 8. esparrua, “Liburugintza”; 8.1.4. esparrua; jardueraren deskribapena osatu (“*Berria.- Ahalegin berezia egin udal liburutegian euskarazko fondoa gehitzeko -liburuak, ikus-entzunezkoak, musika, filmak-. Liburutegiko teknikariarekin helburua adostu/landu*”).

**Beraz, honako hau erabaki da aho batez:**

- 1).- Aipatutako ekarpenak jasota, akta honen 2. eranskin modura dagoen ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) onartu du Euskara Batzardeak.**
- 2).- Plan proposamen horri bidezko tramitazioa ematea, eskumena duen udal organoaren behin-betiko onarpena izan dezan.**

Beste aztergairik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Izp.: Euskara Zinegotzia  
Esperanza Uriarte

Izp.: Hizk. Norm. Teknikaria (HNT1)  
Bittor Zarrabeitia



## ESEP 2014-2017 / HELBURUKA ETA ESPARRUKAKO EKINTZA ETA JARDUERA TAULAK

### TAULEN DESKRIBAPENA:

- **Ekintza:** zutabe honetan adierazten dira egitasmo edo ekintza orokorrak.
- **Jarduera:** ekintza bakoitzeko jarduera edo azpiekintza asko daude (batzuk aurreko plangintzaldietakoak eta beste batzuk berriak).
- **Aipagarrienak:**
  - **Helburu estrategikoetatik, Euskararen erabilerarena** da ekintza eta jarduera kopuruz ugariena. Aurreko plangintzaldian ere aurrekonturik gehien izan duen helburu estrategikoa izan da.
  - **“Helburuak lortzeko zehar lerroak” dugu atal nagusi berri bat** plangintzaldi berrian: ekintza aldetik ugariena ez bada, jarduera kopururik handiena hortxe pilatzen da, batik bat “Euskararen aldeko motibazioa” deituriko esparrukoak direnak. Kontuan hartu behar da jarduera horien bitartez, beste esparru guztiak lantzeari ekiten zaiola.
  - **Aurreko plangintzaldian “enpresa mundua”, “aisia” eta “hedabideak”** izan dira aurrekonturik potoloenak izan duten esparruak. Gaur egun daukagun eskemarekin, bide horri eutsiko zaiola ematen du, baina desberdintasun batekin: hedabideena “Euskararen aldeko motibazioa” deituriko esparrura bideratu da gehiena eta berau izango da aurrekontu aldetik ere sendoenetako bat. Aurrekontu hausnarketa honetatik kanpo uzten dugu Euskara Zerbitzuaren giza-baliabideen kostua, esparru guztietan ekin ahal izateko gastua delako.
  - **Urteroko aurrekontuari dagokionean, aurreko plangintzaldietako konpromisoari eutsiko zaio:** *“Gernika-Lumoko Udalak bere aurrekontu osoarekiko euskararen sustapenerako erabiliko duen portzentajea ez da %2,2tik jaitsiko, azken urteetan batez besteko portzentajea”*. Bai Hizkuntza Politikarako Sailordetzak zein Kontseiluak aholkatutako baremoen barruan dago portzentaje hori.



## I. TAULA

Helburu estrategikoak	Esparruak	2014		2015		2016		2017	
		Ek. kop	Jard. kop	Ek. Kop	Jard.kop	Ek. kop	Jard kop	Ek kop	Jard kop
Euskararen jabekuntza	Familia bidezko transmisioa <b>6 jarduera berri</b>	4	13	3	8	4	13	3	8
	Irakaskuntza <b>4 jarduera berri</b>	5	12	6	13	5	12	5	12
	Euskalduntze-alfabetatzea <b>Jarduera 1 berria</b>	1	2	1	2	1	2	1	2
	<b>Jarduera berriak 11</b>	<b>10</b>	<b>27</b>	<b>10</b>	<b>23</b>	<b>10</b>	<b>27</b>	<b>9</b>	<b>22</b>
Euskararen erabilera	Administrazioa	12		11		10		13	
	Gune geografiko euskaldunenak <b>4 jard. berri</b>	6	10	5	9	5	9	5	9
	<b>Arlo sozio-ekonomikoa</b> <b>2 jarduera berri</b>	5	9	6	10	5	9	5	9
	<b>Asia eta kirola</b> <b>6 jarduera berri</b>	8	15	8	16	8	13	8	13
	<b>Jarduera berriak 12</b>	<b>31</b>	<b>34</b>	<b>30</b>	<b>35</b>	<b>28</b>	<b>31</b>	<b>31</b>	<b>31</b>
Euskara elikatzea	Liburugintza <b>2 jarduera berri</b>	3	3	3	3	3	3	3	3
	Kulturgintza <b>4 jarduera berri</b>	4	8	4	7	4	6	4	6
	Publizitatea <b>Jarduera 1 berria</b>	3	3	3	3	3	3	3	3
	Corpus-plangintza / Euskararen kalitatea <b>4 jarduera berri</b>	2	2	2	2	2	2	2	2
	<b>Hedabideak</b> <b>2 jarduera berri</b>	2	3	2	4	2	2	2	2
	Informazioaren eta komunikazioaren tekn <b>Jarduera 1 berria</b>	4	7	4	6	4	7	4	6
	<b>Jarduera berriak 14</b>	<b>18</b>	<b>26</b>	<b>18</b>	<b>25</b>	<b>18</b>	<b>23</b>	<b>18</b>	<b>22</b>
Helburuak lortzeko zehar lerroak	<b>Euskararen aldeko motibazioa</b> <b>10 jard. berri</b>	15	36	17	34	15	31	15	31
	Barruko proiektzioa <b>Jarduera 1 berria</b>	2	2	2	2	1	1	2	2
	<b>Jarduera berriak 11</b>	<b>17</b>	<b>38</b>	<b>19</b>	<b>36</b>	<b>16</b>	<b>32</b>	<b>17</b>	<b>33</b>



## II. TAULA

Helburu estrategikoak	Jarduera berriak	2014		2015		2016		2017	
		Ekintza kop	Jarduera kop	Ekintza Kop	Jarduera kop	Ekintza kop	Jarduera kop	Ekintza kop	Jarduera kop
Euskararen jabekuntza	11	10	27	10	23	10	27	9	22
<b>Euskararen erabilera</b>	12	<b>31</b>	34	<b>30</b>	35	<b>28</b>	31	<b>31</b>	31
Euskara elikatzea	14	18	26	18	25	18	23	18	22
<b>Helburuak lortzeko zehar lerroak</b>	11	17	<b>38</b>	19	<b>36</b>	16	<b>32</b>	17	<b>33</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>48</b>	<b>76</b>	<b>125</b>	<b>77</b>	<b>119</b>	<b>72</b>	<b>113</b>	<b>75</b>	<b>108</b>